

IRKUPE AOTSAK

sortuikasiplazaratu



Hamar urte musika hauspotzen

Kulturaz kooperatiban hamarkada bat daramagu euskal musika modu askotara lantzen. Kontzertuen programazio oparoa, sentsibilizazio ekimenak, sormen tailerrak eta hainbat eragilerekin elkarlanean sortutako proiektuak.

2017an Arkupehotsak ekimena jarri genuen martxan Euskal Herriko musika proiektu berriei erakusleiho bat emateko. Lau edizioen ostean egindakoaren balorazio sakona egin, baliagarriak zitzaizkigun ezaugarriak mantendu, elementu berriak sartu eta eraberritutako proiektu batekin gatoz. Musika esperientzia osoagoa, publikoarentzako erakargarriagoa eta batik bat musika-riarentzat aberasgarriagoa izango den formatu berri bat proposatzen dugu.

IRKUPE AOTSAK

sortuikasiplazaratu

Helburuak

- Euskarazko sorkuntzarako baliabide duinak jarri eta euskal musikari hedapena ematea.
- Herriko, eskualdeko eta oro har Euskal Herriko musikari gazteen dinamika aktibatzea.
- Kultur esperientzia osoagoa eskaintzea: Sormen ego-naldia, formazioa, eszenaratzea.
- Belaunaldi berriei plaza bat eman eta euskal musikaren eszenan erreleborako zein musika estilo anitzentzako aukerak sortzea.



Deialdiaren ezaugarriak

-  2022ko uztailean deialdia zabalduko dugu 16-25 urte bitarteko musikari gazteentzat.
-  Sei musikari edo musika talde izango dira aukeratuak esperientzia oso hau bizitzeko.
-  Talde bakoitzak egonaldia egingo du Dinamoa sormen guneko Soinuaren Eremuan: Bi asteburuz lo leku eta otorduekin.
-  Hiru jardun landuko dituzte:
 - Talde/musikariaren entseguak zuzeneko prestatzeko.
 - Formazio teknikoa zein artistikoa.
 - Kolaborazioa musikari ezagun/erreferentzial batekin prestaketan eta kontzertuan.
-  Hileko azken igandean emanaldia eskainiko dute Sana-gustin kulturguneko arkupeko eszenatokian eta musikari ezagunaren kolaborazioa izango dute.
-  Komunikazio eta promozio berezia egingo zaie musikari eta musika talde hauei.
-  Amaieran, 2023ko maiatzean, ekitaldi berezi bat egingo da musikari eta talde guztien lana balioan jarri eta edizioari itxiera emateko.

Kontaktua

Aitor Bengoetxea

✉ abengoetxea@kulturaz.eus

☎ 674165682

KulturWZ

Azpeitiko Kultur Kooperatiba

Laguntzaileak:

Azpeitia
Denontzat

BADOK



gaztezulo



naiz: